

IKASTETXEA	ASKATASUNA BHI		
IZENBURUA	Jesusen bataioa sinoptikoen arabera	MAILA	DBH 2
IRAKASLEA	David García	IKASGAIA	Erljio Katolikoa

DBHrako Irakurketaren Ulermenerako Hobekuntza Plana.

1. ATAZA

TESTUA

Nazareteko Jesusen bataioa ebanjelio sinoptikoen arabera

Sinopsi. Iz. 1. Gai bati buruzko funtsezko ideiak daramatzen laburpena. *Pelikularen sinopsia*. 2. Gauzak beraien artean erlasionaturik, osotasuna erraz ikus dadin, azaltzen dituen grafikoa. 3. Ebanjelioak elkarren ondoan paraleloki ezartzeko modua, gertaera berari buruzko testuak batera ikusteko.

Sinoptiko. Izond. 1. Sinopsiari dagokiona; sinopsi-forma edo -funtzioa duena. 2. METEOROL. Eremu zabal batean aldi berean izandako eguraldi-baldintzei dagokiena. *Mapa sinoptikoa*. 3. **Ebanjelio sinoptiko.** (pl.) San Mateo, san Markos, eta san Lukasen ebanjelioei esaten zaie. Beren artean antzekotasun handiak dituzte eta elkarren ondoan paraleloki, sinopsi moduan, jar daitezke.

Markos 1,9-11	Mateo 3,13-17	Lukas 3,21-22	Joan
<p>⁹Egun haietako batean, Jesus etorri zen Galileako Nazarete-tik, eta Joane-k bataiatu egin zuen Jordanean. ¹⁰Jesusek, uretatik ateratzerakoan, zerua urratzen ikusi zuen eta Espiritua, uso-tankeran, beregana jaisten.</p> <p>¹¹Eta mintzo hau etorri zen zerutik: “Zu zaitut neure Semea, neure maitea, zu zaitut atsegin”.</p>	<p>¹³Jesus Galileatik Jordanera etorri zen, Joanengana, honek bataia zezan. ¹⁴Joane-k ez zion utzi nahi eta esan zion:</p> <p>-Neu naiz zuk bataiatu beharrekoa, eta zu zatoz niregana?</p> <p>¹⁵Baina Jesusek erantzun zion:</p> <p>-Uztazu orain, honela bete behar baitugu osoki Jainkoaren nahia.</p> <p>Orduan, amore eman zuen Joane-k.</p> <p>¹⁶Bataiatu eta berehala, Jesus uretatik irten zen. Hortan, zerua zabaldu zen, eta Jainkoaren Espiritua ikusi zuen Jesusek uso-tankeran jaisten eta beregana etortzen.</p> <p>¹⁷Eta mintzo hau etorri zen zerutik: “Hau da nire Semea, nire maitea; berau dut atsegin”.</p>	<p>²¹Herri guztia bataiatzen ari zela Jesus ere bataiatu egin zen eta, otoitzean zegoe-la, zerua zabaldu ²²eta Espiritu Santua jaitsi zitzaion gainera, uso-tankeran agertuz. Eta mintzo hau etorri zen zerutik: “Zu zaitut neure Semea, neure maitea, zu zaitut atsegin”.</p>	

Ebanjelioetako hainbat pasarte bezala, bataiokoa ere “*midras*” kristau bat dugu, hau da: Itun Zaharreko zenbait irudi, esaldi edo gertakizunez pasartez baliatzen da, Jesus kristauentzat nor den erakusteko. Aipa

dezagun zenbait motibo eta ideia nagusi:

- **Zerua zabalik.** Aspalditik (K.a. V. mendetik) zerua itxia zegoela uste zuten, Jainkoa isilik, eta profetarik ez. "Ai zerua urratu eta jaitsiko bazina!" (Is 63,19), zioten Jainko-minez, mundu urratuan Jainkoaren isiltasuna eta urruntasuna jasanezin zaien guztiek menderik mende esan duten bezala. Eta horra Jesusengan zerua urratu!
- **Espiritu berritzailea.** Espiritua "uso-tankeran". Ez dago garbi usoa zeren irudi den: "uren gainean zebilen Jainkoaren arnasaren" irudi (Has 1, 2), edo Israel herriaren irudi (hala da maiz judu-tradizioan) edo Jainkoaren maitasunaren irudi (hala Kantarik ederrenean). Edozein kasutan ere, berritzailea da Espiritua, eta Jesusengan kokatzen da, eta kreaio berriaren hasiera, herri berriaren eta gizadi berriaren hasiera bihurtzen du. Usoa bezala kokatzen da Jainkoaren Espiritu berritzailea kristauengan, haien lurrean, izaki bakoitzean, guztia eder eta berri egiteko. Berritasun horrexen hasiera bezala agertzen zaie fededunei Jesusen bataioa.
- **"Zu zaitut neure Seme maitea".** Horra zer esaten dion zeruak, zabaltzen denean, kreaio eta gizadi berriaren hasikin denari: "Seme maite", "ene atsegin". Horra zer esaten dien kristauei zeruak harengan izaki eta gizaki bakoitzari: "seme maite, alaba maite: atsegin zaitut". Jainkoak ez daki besterik esaten.

David García

<http://www1.euskadi.net/harluxet/>

BIBLI ELKARTE BATUAK, EUSKAL ELIZBARRUTIAK, *Elizen arteko Biblia*, Idatz, Donostia 1994.

ARREGI, J., *Nazaretoko Jesus. Zer gizaki? Zer Jainko?*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo 2000, 96-97.

JATORRIA	
EGILEA	Bibli Elkarte batuak, Euskal Elizbarrutiak Jose Arregi
IZENBURUA	Elizen arteko Biblia Nazaretko Jesus. Zer gizaki? Zer Jainko?
ARGITALETXEA/Webgunea	Idatz. Deustuko Unibertsitatea.
URTEA	1994 2000
ORRIALDEA (K)	96-97
ISBN	84-8083-11-5 84-7485-719-8
TESTU-MOTA	
OINARRIA	Inprimakia
FORMATOA	Jarraia
MOTA	Adierazpeneko + Narraziozkoa
ERABILERA	Hezkuntzako

ESTRATEGIAK

IRAKURRI BAINO LEHEN

1. Helburu ezberdinekin irakurtzea

1.1. Helburu orokorra. Testu hau gure ikasgaiaren unitate didaktiko bati dagokio, Erljio Departamentuak osatutakoa: "Jesus historikoa eta kristauen fedea". Horregatik, dokumentu honen helburuetako bat izango da unitate horrena: Nazaretoko Jesusen datu historikoak ezagutzeko eta kristautzat duten esanahia ulertzea.

1.2. Helburu zehatzak. Nazaretoko Jesus ezagutzeko bide berezi diren ebanjelioetarako hurbilketa izango da beste helburu bat: haien egitura eta interpretazioaren azterketa.

2. Aurretiko ezagutzen aktibazioa

2.1. Jesusen bataioari buruzkoak. Elkarrizketa irekiaren bidez, ikasleek adieraziko dute haiek dakitena datu horri buruz, baita nondik atera duten informazio hori (norengandik entzun, non irakurri...) eta noiz.

2.2. Ebanjelioei buruzkoak. Modu berean, aurreko kurtsoetan ikasitakoa gogoratu daiteke (zenbat ebanjelio dauden, nork idatziak, noiz...).

2.3. Kontatzen al dute ebanjelioek benetan Jesusi gertatutakoa? Zeri begiratzen diote, batez ere? Gauza bera modu desberdinetan kontatu daiteke? Zergatik? Zer egin behar da, ebanjelioek diotena ongi ulertzeko?

OHARRAK

IRAKURRI BITARTEAN

4. Irakurketa aktiboa

4.2. Estrategia materiala (1): azpimarratzea. Kolore bat erabiliko da hiru sinoptikoen artean dauden kointzidentziak azpimarratzeko; beste kolore bat, ezberdintasunak ikusteko.

4.4. Estrategia materiala (2): alboko oharrak. Testuaren ondoan galdera-ikur baten bidez seinala daitezke irakurri bitartean aurkituko diren hitz eta/edo gainerako zailtasunak.

OHARRAK

IRAKURRI ONDOREN

5. Inferentziak egitea

Testuaren azken atalean irakurritakoa kontuan harturik, batez ere, 3.1. estrategian proposatutakoa berriro tratatuko da. Zer gertatu zen Jesusekin bere bataioan? Zer suposatu zuen berarentzat? Eta bere jarraitzaileentzat? Sinoptikoek kontatu duten gertaera gaur egun kontatzeko zer era edo modu erabiliko lirakeke eztabaidatzea. Zertan izango zen desberdin kontakizun hori K.o. I. mendeko testu ebanjelikoena parekaturik, asmo berdina mantentzeko?

OHARRAK